



ORIOKOU DALA

Euskaraz
bizi-bizi

ORIOKO UDALERRIAN KULTUR, GAZTERIA, INGURUMEN ETA AISIALDI JARDUEREI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Helburua

Irabazi asmorik gabeko Orioko kultur, gazteria, ingurumen eta aisialdiko talde zein elkarteei diru-laguntzak emateko oinarriak arautzea da, aurtan sektore horietan egitasmo eta jarduerak burutzeko. Jarduera hauek, betiere, bat egin behar dute Orioko Udalaren kultura, gazteria, ingurumen eta aisialdirako programen helburuekin.

Diru-laguntzak ondorengo atalen baterako eskatu ahal izango dira:

- Orioko kultur, natura eta gazteria erakunde eta taldeen ohiko jarduerak.
- Gazteria, ingurumen edo eta kultur jarduera puntualak: berezko ezaugarriengatik aurreikusi ezin izan diren jarduerak dira, edota aldian behinekoak direlako oinarriotan zehaztutako epean burutuko direnak. Kultura eta Gazteria batzordeari dagokio ekimenaren izaera puntuala zehaztea.
- Kultur/gazte/ natur egitasmo eta jarduerak orokorrean.
- Auzoetako festak.

Bigarrena. Finantzazioa.

Udalak diru-laguntza hauek emateko dagozkion aurrekontu atalak osatuko ditu eta Udalaren aurrekontu orokorrarekin batera onartuko dira. Atal horietan aurreikusitako diru-kopurua izango da diru-laguntzetarako emango den diru guztia. Hurrengo urteetarako Orioko Udalak dagokion aurrekontu partidak zehaztuko du.

Hirugarrena. Irizpide orokorrak.

Diru-laguntzen helburua da irabazi asmorik gabeko ekintzak bultzatzea. Diru-laguntza borondatezkoa eta behin-behinekoa da. Berau emateak ez dio Udalari inolako derrigortasunik ekarriko hurrengo deialdiei begira.

Laugarrena. Eskatzaileak.

Diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte:

- Legez eraturako erakunde, elkarte eta taldeak.
- Gazteria, kultur, ingurumen edo aisialdi jarduerak burutzen dituzten norbanakoak edo helburu bererako elkartutako pertsona taldeak.



ORIOKOUNDALA

Euskaraz
bizi-bizi

Diru-laguntza hauek beste batzuekin batera daitezke; horrela bada, adierazi egin beharko da jarduera bererako bestelako diru-laguntzak eskatu direla.

Bosgarrena. Eskaeren aurkezpena.

Interesatuak hurrengo baldintzak bete beharko dituzte:

1. Eskaerak egiteko diru-laguntzetarako eskaera orri ofizialak betetzea.
2. Egitasmo edo jardueraren arduradunak diru-laguntza eskatu ahal izateko, eskaera-orri ofizialaren atal guztiak betetzea.
3. Eskaerak ekitaldi bakoitzeko aurreko urteko azaroan aurkeztu behar dira; jarduera puntualen kasuan, berriz, eskaera jarduera burutu baino bi hilabete lehenago egin beharko da, gutxienez.

Eskaerekin batera ondorengo agiriak ekarri beharko dira:

a) Diru-laguntza lehendabiziko aldiz eskatzen duten elkarteak.

- Eusko Jaurlaritzako elkarte edo erakundearen erregistroan zein elkartearen udal erregistroan erroldatuta daudeneko ziurtagiria.
- Elkartearen edo erakundearen estatutuak.
- Elkartearen Curriculum-Vitae: orain arte burututako jarduerak, helburuak, giza eta material baliabideak, ea..
- Arduradun(ar)en NANaren fotokopia.
- Identifikazio Fiskalerako Kodearen fotokopia.

b) Eskaera egiten duten talde edo elkarte guztiak:

- Diru sarrera eta gastuen urteko aurrekontua.
- Urteko jarduera-egitasmoa: Jarduerak egiteko epeak eta datak, metodologia, helburuak, zein biztanle-talderentzako pentsatu den, etab.
- Elkarteari buruzko txosten laburra, oinarri hauetako seigarren ataleko puntuan zehaztutakoa jasoko duena.
- Diruz lagunduko diren egitasmoen iazko memoria. Bertan agertuko dira: burututako egitasmoak azaltzeko memoria, gastuen balantzea eta agiriak, eta jarduerak egiaztatzeak agiriaren dossierra (kartelak, prentsa oharrak etab.).

c) Eskaera norbanakoek aurkezten badute, edota eraketa finkoa ez duten taldeen izenean egiten bada:

- Arduradun(ar)en NANaren fotokopia.
- Arduradun(ar)en edo taldearen Curriculum vitae.
- Programaren gastuen eta sarreraren aurrekontua.



ORIOKOUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

- Egitasmoari buruzko txosten laburra oinarri hauetako seigarren ataleko puntuan zehaztutakoa jasoko duena.
- Urteko jarduera-egitasmoa: Jarduerak egiteko epeak eta datak, metodologia, helburuak, zein biztanle-talderentzako pentsatu den, e.a.
- Errepikatzen den ekintza bat bada, diruz lagunduko diren egitasmoen iazko memoria. Bertan agertuko dira: burututako egitasmoak azaltzeko memoria, gastuen balantzea eta agiriak, eta jarduerak egiaztatzeko agirien dossierra (kartelak, prentsa oharrak etab.).

d) Izaera puntualeko jardueretarako diru-laguntzak eskatu dituzten guztiak.

- Jardueraren historia eta/edo parte-hartzaileen curriculum vitae.
- Egitasmoaren antolaketa zehazten duen txosten teknikoa
- Jarduera esparrua.
- Parte-hartzaileak, mailaka edo adinka zehaztuta.
- Jardueren toki eta datak.
- Jarduerari emango zaion zabalkundea (telebista, irratia, prentsa).
- Ikusle kopurua.
- Antolaketarako materialak eta giza baliabideak.
- Jarduera antolatuko duen pertsona edo taldearen fitxa osoa.
- Ekonomia txostena, jardueraren gastuak eta sarrerak zehaztuta.
- Beste erakunde pribatu edo publikoren batetik jasotako edo hitzartutako dirulaguntzak, behar bezala egiaztatuta. Bestela, dirurik jasotzen ez delako zinpeko aitorpena.

e) Auzoetako jaiak antolatzeko diru-laguntzak eskatzen dituzten guztiak

- Jardueraren historia.
- Egitasmoaren antolaketa zehazten duen txosten teknikoa
- Jarduera esparrua.
- Parte-hartzaileak, mailaka edo adinka zehaztuta.
- Jardueren toki eta datak.
- Jarduerari emango zaion zabalkundea (telebista, irratia, prentsa).
- Parte-hartzaile kopurua.
- Antolaketarako materialak eta giza baliabideak.
- Ekonomia txostena, jardueraren gastuak eta sarrerak zehaztuta.
- Beste erakunde pribatu edo publikoren batetik jasotako edo hitzartutako dirulaguntzak, behar bezala egiaztatuta. Bestela, dirurik jasotzen ez delako zinpeko aitorpena.



ORIOKUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

Agiriok ez aurkezteak diru-laguntza jasotzeari uko egiten zaiola esan nahiko du. Era berean, datuak ezkutatu edo faltsutzeak diru-laguntza hau, edo ondorengoak, jasotzeko eskubide galera ekarriko du.

Eskaera ondo bete gabe bada, edo agiriren bat falta bada, 15 eguneko epea emango da hutsunea betetzeko eta, epe honetan osatu ez bada, artxibora bidaliko da besterik gabe.

Aurreko urteetan eskaria egin izan duten erakunde edo taldeek, datuetan aldaketarik izan badute, Kultura eta Gazteria Batzordeari aldaketon berri eman beharko die

Seigarrena. Ebaluazioa eta diru-laguntzak emateko irizpideak

Diru-laguntzak ematerakoan, oro har, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Ikastaroak antolatzen direnean, gehienez ere, Udalari eskatutako diru-laguntzaren %60a lagunduko dira diruz. Ikastaroko parte-hartzaile bakoitzeko udalak emango duen gehienezko diru kopurua 100€koa izango da. Langabezian dauden ikasleei, langabetuei eta jubilatuei %80 ordainduko zaie.
- Irteerak antolatzeko diru-laguntzan, gehienez ere, Udalari eskatutako diru laguntzaren %20ekoa izango da helduen kasuan eta %50ekoa langabezian dauden ikasleen, langabetuen eta jubilatuen kasuan. Gehienez ere, partaideko 100€ ordainduko direlarik.
- Hitzaldiak antolatzeko diru-laguntzan, gehienez ere, %100 ordainduko da.
- Erakusketak antolatzeko diru-laguntzetan, gehienez ere, aurrekontua 500€ baino gutxiago bada %100a emango da. 500€ baino gehiago balitz %50 ordainduko da. Beti ere, erakusketon helburua ez du salmenta izan behar.
- Kanpaldiak eta gainerakoak antolatzeko diru-laguntzetan, gehienez ere, Udalari eskatutako diru-laguntzaren %50 eta %100 bitartean ordainduko da. 1000€ aurrekontutik beherakoei %100 ordainduko zaie eta 1000€ gorako aurrekontuei %50. Kasuan kasu aztertuko delarik.
- Emanaldietarako (antzerki, musika...) emanaldiaren aurrekontua 1.000euro baino gutxiagokoa bada %100 ordainduko du Udalak, 1.000euro baino gehiagoko aurrekontuetan %80 ordainduko da. Diru-sarrerak dituzten emanaldietarako kasuan kasu aztertuko da.
- Auzoetako jaiak antolatzeko, gehienez ere, gastuaren %100a da, kasuan kasu aztertuko delarik.

Kultur eta gazteri teknikariak aurkeztutako egitasmoak aztertu ondoren prestatutako txostena Kultur Batzordean aurkeztuko du. Kultur Batzorde horretan gainontzeko zinegotzietan gain Kultur Mahaiko zenbait ordezkari (gehienez 3)



ORIOKOUNDALA

Euskaraz
bizi-bizi

egongo da beren iritzia emateko. Ondoren, behin betiko erabakiaren txostena egingo du Kultura eta Gazteria Batzordeak.

Eskaerak jasotzeko azken egunaren biharamunetik aurrera, hilabeteko epean, ebazpena egingo du Kultura eta Gazteria Batzordeak.

Diru-laguntzak emateko kontuan hartuko diren puntuak memoria laburrean edo eskariarekin batera ekarri beharreko txostenean jasotakoak dira, hain zuzen ere:

- Elkartearen eta ekimenaren irekitasuna.
- Ingurumenarekiko errespetuz jokatzea: gizakiok ingurumenaren parte izaki egingo ditugun ekintza guztietan kontuan izan beharreko arlo bat da, zehar lerro gisa beste arlo guztiak ukituko dituena. Beraz, diru-laguntza hauek esleitzerakoan aintzat hartuko da prestatutako ekintzek ingurumena zaintzeko egindako lana.
- Elkartearen funtzionamenduan eta antolatzen dituen ekintzetan euskararen erabilerarako eta euskararen presentziarako egiten den lana.
- Antolatutako ekimenak Kultura, Gazteria, Festak eta Ingurumenarekiko duen lotura.
- Antolatutako ekintzetan gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna kontuan hartu izana.
- Antolatutako ekintzetan bizikidetza eta kulturartekotasun irizpideak kontuan hartu izana.
- Antolatutako ekintzak sortzen duen interesa eta berau antolatzen den maiztasuna.
- Herriko ekintzetan elkarreak edo norbanakoak aurkeztu duten elkarlana eta parte-hartzea.
- Udalerriko irudia ezagutzera ematen eta hobetzen egindako ekarpena.

Zazpigarrena. Diru-laguntzen ordainketa.

Ohiko jarduera bada, ordainketa diru-laguntza eskatzeko epea amaitu eta hurrengo bi hilabeteetan egingo da, beti ere, aurreko urteko jarduera edo programaren memoria jaso ondoren. **Talde bakoitzari beren memorian, antolatutako ekintzen balantze ekonomikoaz gain ekimeneko balorazio bat egitea eskatuko zaio. Elkarreek memoria eta zuriaketak 2020ko urtarrilaren 17a baino lehen itzuli beharko dituzte.**

Jarduera puntualen kasuan, agiri hauek jarduera burutu eta hilabeteren buruan aurkeztuko dira.



ORIOKUDALA

Euskaraz
bizi-bizi



Dena dela, izaera puntualeko jarduerak direnean edo bestelako egoera bereziren baten, Kultura eta Gazteri Batzordeak hemen zehaztutakotik kanpoko moduan egin dezake ordainketa, elkarteak behar bezala arrazoituz gero.

Zortzigarrena.- Publizitatea

Diruz lagundutako jardueren publizitatea euskaraz egingo da; ele bitan ere egin ahal izango da, beti ere euskarari lehentasuna emanaz. Orioko Udalaren laguntza nahitaez adierazi beharko da.

Bederatzigarrena.- Baldintzak ez betetzea

Oinarriotan jarritako baldintzak betetzen ez badira, diru-laguntza emateari utzi egingo zaio, eta halakoetan, gainera, elkarteak hurrengo urtean laguntzetara aurkezteko eskubiderik ez du izango; bi urte barru aurkeztu nahi balu, zor duen diru-kopurua deskontatu egingo zaio.

Hamargarrena.- Interpretazioa

Oinarrion interpretazioan edo ezarpenean sor litezkeen zalantzak lehenik kultur mahaiari eztabaidatuko dira eta, ondoren, dagokion udal batzordeak erabakiko ditu.